



IRAKASGAIAREN AURKEZPENA

IRAKASGAIA: Zientzia eta matematika esparrua
IKASTURTEA: 2018-2019

IRAKASLEA: Xabier Mina
TALDEA: Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa 2

EDUKIAK:

- 1.- *Zenbakiak eta algebra.*
- 2.- *Geometria.*
- 3.- *Funtzioak.*
- 4.- *Estatistika eta probabilitatea.*
- 5.- *Jarduera zientifikoa.*
- 6.- *Materia.*
- 7.- *Aldaketa kimikoak*
- 7.- *Higidura eta indarrak*
- 8.- *Energia*

Materialak: Irakasleak banatutako fitxak, fotokopiak, blok-a, plastikozko zorrotxoak.

KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA:

1.- Kalifikazio irizpideak:

-**Proba idatziak:** Ebaluazio bakoitzean 1, 2 edo 3 proba idatzi egingo dituzte, eta hauekin batezbesteko aritmetikoa egingo da. Proba bakoitzean kontzeptuzko eta prozedurazko helburuen lorpena neurtuko da.

- **Egindako lana:** Behaketa sistematikoa egingo da, etxean egunero egindako lana, gela barruko lana, arbelean edo ahoz zuzendutako ariketak, laborategiko lana, **koadernoak**, mapa kontzeptualak edo laburpenak.

- **Jarrera:** Parte hartzea eta interesa kontutan hartuko dira. Era berean, ikasleak momentu oro behar duen materiala eskura izatea baloratuko da. Talde-lanak egingo dituzte eta hauekin batez ere jarrerazko edukiak hartuko dira kontuan, prozedurazko edukiak eta kontzeptuzko edukiak batera. Partaidatzea, lanaren puntualtasuna, besteen iritzia errespetatzea, lan ondo antolatzea. Informazioarekin kritikoa izatea, hauek guztiak neurtuko dira



IRAKASGAIAREN AURKEZPENA

2.-Kalifikazioen balio portzentuala:

Ebaluazio bakoitzean adierazten den bezala lortuko da:

- Notaren **%60** egindako **proba idatziak**. Bataz bestekoa egiteko proba idatzian minimo batera iritsi behar dira, hau da, 4 puntuaziora.
- Notaren **%30**, **egindako lana**, laborategiko txostenak barne. Bataz bestekoa egiteko minimo batera iritsi behar dira, hau da, 5 puntuaziora.
- Notaren **%10 jarrera**. Bataz bestekoa egiteko minimo batera iritsi behar dira, hau da, 5 puntuaziora.

3.- Berreskurapen sistema:

Ikasleak ebaluazio positiborik lortzen ez duenean, berreskurapen neurriak hartuko dira. Lehenengo eta behin, ikasle bakoitzarekin hitz egingo da, dituen akatsak eta gainditzeko egin behar duena jakinarazteko. Horretarako, zenbait berreskuratzeko jarduerak diseinatuko dira. Hala nola, eskema bat osatzea, laburpena berriro egitea, zenbait jarduera errepikatzea, egindako idatzi probak liburuarekin batera egitea, koadernoan berriro egituratzea.

Ebaluazio bakoitza izan ondoren, berreskurapen froga egingo da emandako edukiei buruz. Lana edo azterketa bidez egingo da.

Ebaluazioren bat gainditu gabe duen ikasleak, **Ekaineko ohiko probara** aurkeztu beharko du gainditu gabeko zatiaz edo zatietaz ebaluatua izateko. Gainditzen ez badu, **ekaineko ez-ohiko proba** egin beharko dute.

KOADERNOAREN ANTOLAMENDUA:

Irakasgaiaren arazorik gabe aurrera egiteko baldintzetako bat zalantzarik gabe egunero koadernoan lan egitea da. Aldi berean ere, ezin bestekoa da norberaren lanerako.

Koadernoan lantzeko jarraibideak.

Orri guztiak dokumentu- zorro batean sartuko dira, ondorengo ataletan antolatuta:

- Portada: Ikasgaia, kurtsoa, taldea, izena eta abizena
- Aurkibidea
- Eskemak, laburpenak eta mapa kontzeptualak.



IRAKASGAIAREN AURKEZPENA

- UD bakoitzaren izenburua eta irakasleak emandako edukiaren aurkibidea ipiniko dira. Unitate didaktikoak ondo bereiztuta egongo dira.
- Orrialde guztiak zenbakituta. Jarduera guztien izenburua jarriko da.
- Ikasgelan nahiz etxean egindako lana, arbelean zuzendutako ariketak.
- Eguneratuta eramatea.
- Ikasteko fitxak, irakasleak emandako fitxak (errefortzuzkoa edota sakontzekoa)
- Laborategian egindako saiakuntza, prozesua eta emaitzak.

Aurkezpena: Orrialde guztietan esker eta eskuin aldean nahiz goiko eta behekoan esparruak utzi. Garbitasunez eta ordenetan antolatu jarduera guztiak. Jarduera beltz edo urdin boligrafoa erabili. Marrazkiak egiteko arkatza erabil dezakezu. Txostenetan arreta izan ortografiarekin eta hiztegiarekin. Jarduerak jorratzerakoan kokatu dagokion unitate didaktikoetan.